

## Bola txapelketako azken hiru botaldiak maiatzean

10. orrialdea

## Zeanuriko Erroten VI. ibilaldia

Gure ingurumariak ezagutzeko aukerea eskeintzen dabe maiatzaren 8rako, Ipizki eta Joko Alai alkarteak Zeanuriko Erroten VI. ibilaldiagaz. Martxearen helburuak datozan bisitariak Zeanuri eta bere auzoak ezagutzera emotea; eta, Zeanuriren historian errota izan daben garrantzia ezagutarazotea dira. Urteerea herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan. **12. orrialdea**



## Arratia Inguruko Hiztegiaren 2. edizioa kalean dago

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 142

2011ko maiatzaren 3a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## Alex Txikonen sasoia hasi da

Edurne Pasabanegaz egindako beharra amaituta, aro barri bat hasi da Alex Txikonentzat.

Orain 30 urte egiten zana egitea, eta diru publikoaz gainera, ez jata ondo iruditzen, zorrotzagoak izan behar gara" dino Lemoako mendizaleak. Horregaitik, egin dauala dino, azkenengo espedizino hau, gauza barriak egin gura dauzalako, "betikotik igesi".

Bere azkenengo abenturaren barri Alex Txikonek ETBra bialdu eta ETBK eskeini dituan bideoen bitartez euki dau mundu zabalak. Bideootan, Txikonek espedizinoaren zailtasunak neguan bide barri bat zabaltzeko Gasherrum II-n kontetan zituau. Espedizinoak ez eban ton-torra zapaldu, baina Txikonek nazi-

noarteko espedizino hau osotuten eben Göschi eta Rousseau-gaz beste proiektu bi daukaz: lehenengoan, uda partean, K-2ra joatea autoz Lemoatik urtenda eta K-2n bide barri bat zabaltzea; eta bestea, neguan beste saiakera bat egitea G-IIIn.

Pasabanegaz lanean ibili zanean, dana eukan ordainduta eta soldata bat be ateratzen eban. Orain, barriz, babesleak eta diru laguntzak behar ditu bide barrietatik ekiteko eta neguko espedizinoak udakoak halako bi kostetan dabela dino.

Aizkorea be ez dau ahaztu Lemoakoak eta Bizkaiko Txapelketan parte hartuko dau. **8. eta 9. orrialdeak**



Alex Txikon bere azken espedizinoan.

### ARRATIA

## Begitu-lagunai kamiseteta emongo deustoz Zertuk

BEGITU Aldizkariaren kamiseta neurrikoa lortzeko, begitu-lagunak euren neurria jakinarazoz beharko deustoz Zerturi. Horretarako, [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera idatzi beharko da edo 649 979 115 telefonora deitu. Momentuan, begitu-lagun egin ezkerok, kamiseteaz gain, *Arratia Inguruko Hiztegia*. Aurreko urteetan Zertuk atera dauan material desbardina eta begitu-lagunen txokoa hamabostero zozketatzen diran beste opari asko be eroan ahal izango dabez etxera begitu-lagun barriak. BEGIRUKO irakurleak be eukiko dabez bentajak, zenbaki honetan eta aurreko bietan dagozan kupoiak ebagi eta Areatzakok bainuetxera eroan ezkerok % 15eko deskontua eukiko dabe berbarok **7. orrialdea**

### ARRATIA

## Krisia ardatz Maiatzaren Lehenan

Egoera ekonomiko latzari aurre egiteko alkarlanaren garrantzia azpimarratu eban Adolfo Muñoz ELAko idazkari nagusiak Bilboko ekitaldian. Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusiak, barriz, "beste eredu ekonomiko eta sozial bat" behar dala aldarrikatu eban. Unai Sordo CCOOko idazkari nagusiak, erreforma laborala bertan behera ixteko eta "langabeziaren kontrako burrukaren" alde egin eban. **5. orrialdea**



### DIMA ETA ZEANURI

## Ganadu azokak Diman eta Zeanurin

Baserrigiroa ekarriko dau Zeanurira San Isidroko ganadu azokeak hilaren 15ean. Aurten, Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokearen XXX. edizioa ospatuko da. Ganaduari lotutako hainbat lan erakutsiko dabez azokan eta arrastian idi-probak eta herri kirolak egongo dira.

Aste bete lehenago, maiatzaren 8an, Diman izango da ganadu azokea. **5. orrialdea**



## KANTU HERRIKOIAK

## OTSAINAREN KANTUA

1. Kanta bat ikasi dot aurtengo urtean Bilboko otsainaren praktikante batean.
2. Plazan ta txorroetan bai karnezerian txito egoten dira pazientzi handian.
3. Ikusi orduko ta lehenengo berbea -zer dinozu, Maritxu ene alabea?
4. -Ama, ni ondo nabil ahal dodan posiblean ezin leike gure etxean inok egin urtean.
5. -Zer dozu ba Maritxu urten ez eiteko? -Denborea behogu honeik kontetako.
6. -Jarri gaitian biok alkarren ondoan alkarri kontetako zer dogun gogoan.
7. -Uzaba bat ba dogu pastela langoa ta uzandrea bai ona inor ez langoa.
8. Inunde barraban bat sartu behaku etxean ezin du bakerik ein otsainon artean.
9. Gaur ere jagi eta lehenengo berbea plantxetako dauela seinen erropea.
10. Uzaba etorri jaku salatuk sutera otsainok despatxetan etxetik kanpora.
11. Loroak dinoskio goiko bentanatik -Horreik jaukiek gogoa uzaben lepotik!
12. Oilo estofadue uzabari ostue hurragoak joateko paseetan doskue.
13. -Isilik egon hadi barritsu haundie hik egotziko heuskio hatxari mendie.

Iturria: Patxi Bilbao Etxebarria (Dima 1903-Lemoa 1992).

1987an, Lemoan, Udako Euskal Unibertsitateko musika taldeak jasoa.

Oharra: Xabier Amurizak, "Bizkaiko Bertsogintza" bilduma eder horretan, kanta honeri egindako orrazketea erabili da.

## Otsainaren kantua



## TELEFONO INTERESGARRIAK

## Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

## Guardiako Farmaziak

## Maiatzaren 2tik 8ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

## Maiatzaren 9tik 15era

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

## Maiatzaren 16tik 22ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

## Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

## Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

## Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

## Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

## Parketxea

94 673 92 79

## Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

## Gazte Informazio Bulegoa

94 673 62 51 eta 639 018 133

## Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

## Trenak

Euskotren 902 543 210

## Bizkaibus\* 902 222 265

## Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

## Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

## Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

## Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

## Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

## La Union\* 94 427 11 11

## Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

## Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau

Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau

Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino taldea: Maite Arrizabalaga, Maialen Egileor, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Iñigo Iruarizaga.


Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodríguez eta Pablo Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.400 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

## Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Visorresponsable de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saia  
Departamento de Cultura



bbk

## ZEURE BERBEA

### Berbalagun ingelesa? Zergaitik ez!

Danok dakigu hizkuntza bat ikasteko, ezer baino lehenago hizkuntza horren gramatika eta logikea apurtu bat ikasi behar dirala, baina horren ostean, erarik onena, hizkuntza hori praktikatzea dala, eta ama-hizkuntzatzat daukienak bada, hobeto.

Horregaitik sortuten dira berbalagun taldeak, giro lasai eta lagunartean, hizkuntza entzun, erabili eta neurri baten menperatuteko.

Ohituta gagoz euskerazko berbalagun taldeen ganean berba egiten, baina oraingoan, ingeles berbalagun taldea aurkeztuko deutsuegu. Igorren batzean dana.

Bai, amerikar bat eta euskaldun partidatu batek osotuten dogu talde hau, eta eguen arrastietan, zerbeztatu bat hartuaz mihinak soltetako, ingeles berbalagun bat egiten dogu Zekutze tabernan.

Orain dala hilebete bat hasi ginan, eta momentuz hor segiduteko gogoia daukagu, atzerrira

oporretan joan eta hobekuntzak zelangoak izan diran neurte arte edo...

Edozertaz egiten dogu berba, egia esan, egunak eta eguneroak emoten deuskue gaia, danok be isilik egotekoak ez gara eta.

Hau guztiau leiduta egunen baten etorteko gogoia badaukazu, badakizu non gagozan. Ondo etorria izango zara.

#### INGELESEZKO BERBALAGUN TALDEA

### Korrika Kulturalaren balorazioa

Zeanuriko eskoleak antolatu dauan aste kulturalaren barruan (apirilak 8-15), eta azken egunean Korrika Txikia Zeanuriri amaitzen zanez, Zeanuriko eskolako zuzendariak, Ainhoa Pujanak, luzatu eutsan Guraso Alkarteari jai bat egiteko ideia.

Guraso Alkartea ipini zan kontaktuan herriko talde kulturalakaz eta Zeanuriko Guraso Alkartea,

Alozo Euskera Taldea eta Zeanuriko Gazte Asanblada antolatzaile moduan agertu ziran.

Korrika Kulturala antolatzeko babes handia agertu da bai herrian bai herritik kanpo.

Lerro honeen bitartez balorazio bat egin gura dogu:

Sano arrakastatsua izan da guretzat, alde batetik herriko adin eta pentsaera desbardinatuko jentea kupelaren inguruan abesten egon ginalako eta bestalde Zeanuri-Areatzaren arteko hartu-emonetan aurrerapausu bat emon dogulako.

Euskereak batzean gaitualako lortu dogu hori guztia.

Amaitzeko eskerrak emon, hau aurrera ateratea posible egin dozu guztioi.

- Areatzako Udalari Kukubiltxoren ikuskizunerako emon dozu diru-laguntzeagaitik, eta herriko umeak gure herrira etorteko ipini dozu autobusagaitik.

- Ellauri Hotela, Txoko Sagarna, Loli-leire, Batzokia, Jubilauak, Julian Ajuriagerra, Jon Etxebarria, Intxaurraga Ikaztegia eta Frontoiko Taberneari emondako laguntzeagaitik.

- Dimako Eguzkin Okindegiari.

- Gontzal Mendibil, Olatz eta Esti, Iñaki Iturrioz, Eñaut Intxaurraga, Jabi Orue, Irati Astondoa, DJ TIBE (Edorta), Saioa Larrea, Ibai Milikua, Jon Artetxe... Areatzako gazte-artista eta trikitilariak.

- Arratiako aek-ri emondako babesa eta laguntzeagaitik.

- Zeanuriko Udalari eta udaleko langilei logistikeagaitik.

Eta ezin doguz ahaztu zeanuriztar guztiak, tailerretan, antzerkian eta afariaren antolaketan parte hartu dozuenok.

Danoi bihotz-bihotzez eskerrak asko.

#### KORRIKA JAIAREN ANTOLATZAILEAK

## ERETXIA



### BEGOÑA PERNAS RIAÑO

Soziologo eta historialaria

### Bizitza pribaduaren gizartea

**E**txera heldu, etxe bat erosi, familia bat sortu, norbera izan, etxea zarratu... Zergaitik da hain garrantzi handikoa etxea gaur egungo imaginario kolektiboan? Bizitza pribaduaren utopia, hau da, jentartearen aurrean norbanako bakana –besteen modukoa baina desbardina- izateko posibilitadea, etxea deitzean dogun espazioan gauzatzen da. Eta utopia hau, azkenengo gizaldi biotan urien historia markau dauana, neurri barik hazi da espazio sozial guztia inbaditu arte. Pribadutasunaren hipertrofia hau etxeak gero eta handiagoak izatean eta kaleen atzera egitean islatzen da. Familiak gero eta txikiagoak dira baina etxeak gero eta handiagoak. Eta inguruan dana da etxebizitza: etxebizitza blokeak, familia bakarreko etxeak... ze paisaje klase dira horreek non kapokorik ez dagoan? Bizitza pribaduaren luzapena baino ez dira inguruok eta hor adin, gizarte maila edota interes antzekodunak bizi eta gurutzatzen dira.

Baina bizitza pribaduaren utopia eregi zanean, eta historiako subjektu aktibo moduan gizabanakoarentzat espazio bat bilatu zanean, espazio hau ezin zan banandu kontraktik; hau da, espazio publikotik. Espazio publikoan gizabanakoak parte hartu ahal izaten eban danon kontuetan, eretxi publikoa eratuz. Pribadutasuna zan honen muga, baina baita be, bizitza publikoaren sostengua eta baldintza.

Bizitza pribaduaren promesa, herritar guztiak zabaldu jakien gero. Guztia?

Ez zehazki, ze orden sozial hori zeharkatzen eban faila handi batek. Andrak pribatizatu ziran, besteen bizitza pribaduaren parte izatera pasatu ziran: senarraren autoridadepean, beharginaren familia soldatapean, eskubide zibil eta politikoak emoten dauzan itun sozialetik kanpo. Andreen eginkizuna bikotxa zan: etxeke ekonomia sostengatu eta norbanakoak fabrikau, subjektibidade barriaren baldintza psikologiko eta moralak sortuz. Holan, orden burguesaren promesa nagusia etxe osotutako gizartea zan, bako txak barruan etxeokandre bat eukana. Etxeen bardintasan heritaren bardintasuna ordezkatu eban, familietako aiten ordenak gizarte mailako desbardintasan ezkutatu zituan.

Espazio pribaduaren arrakastea hain handia izan da, espazio publikoak tragau egin dauala, eta aldi berean, etxeokandre etxetik iges egin dabe, etxeak arima barik itxiz, zeozelan esatearren.

Zer geratzen da utopia honetatik? Zer geratzen da gure etxeen barruan eta etxetatik kanpo? Egoera honen ironia adierazoten dau argi eta garbi IKEA multinazionalaren publizidadeak, zeure etxearen errepublika independentera ondo etorria emonez. Kanpoan etsaitzat jotzen dogun mundua geratzen da; nahiz eta mundu honen etsaitasuna beste sasoi batzuetako etsaitasunaren kontrako izan: kanpoan dagozanak ez dira oihanaren arriskuak, ezta gizartearen kaosa edota matxinadeari bildurra. Kanpoan dagozanak produzino eta ordena, arauak dira; barruan, norbanakoak bere buruari diziplinari eza onartuten deuto eta desirak, hau da konsumoak, gidatzen dau bere jokare. Etxean danok ei gara bardinak eta libreak, publizidadearen arabera. Bardintasuna eta askatasuna ez dira orain gai politikoak, polis-ean gauzatu behar diranak, etxeke baloreak baino.

Zein da ideal barria? Dirudianez, laguntzarik behar ez daben gizabanakoak, sare personal eta teknologikoen bidez konektatu inguru hiper arautu baten. Bizitza pribaduen gizarteak aldaketa soziala jasan ahal dau, baina ezin dau erresistentzia antolatu. Etxetan merkadua barruraino sartu eta espazio publiko pobretu eta disziplinau dan honetan, zer topauko dogu kalera urteterakoan? Oihana ala matxinadea?

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

### Aratinik



Gora begira, buruz gora egotea da.

Esan: **átinik** esaten da.

Kasu batzuk: -Etzunda egon edo buruz gora begira uger egiten danean erabilten da.

-Aratinik jausi, atzerantza edo gora begira jaustea da.

-Txarria hil ostean, eskegiten da aratinik, hau da, hankaz gora.

-Kamasutren irudi honetan aratinik dago gizonetako.

**K Kendall Languages**

Europa mailan sano ezaguna dan ingelerazko ziurtagiria lortu gura dozu?

**zatoz** Holan bada: %95eko arrakasta daukagu

Irakaslegoa oso prestatua dago eta gehienen ama hizkuntza ingelera da. Bagilean (ekaina) zentroan bertan egingo dan Trinity azterketara aurkeztu zintekoz. Enpresetarako ingelera.

**Kendall Languages, jentea prestatzen**

Elxalde 4 behea  
48.140 Igorre (Bizkaia)  
94 657 73 48  
[www.kendall-languages.com](http://www.kendall-languages.com)

## LUMATUTEN



KEPA INTXAUSTI

## Derbia

**A**urtengo Aste Santuan, hemen gelditu garanok be euki dogu ondo pasetako aukeratua, Athletic eta Errealaren artean jokatu dabena futbol partiduagaz, Aberri Egunaren astegoiena hasteko aukera biribila emon euskuen.

Hamabost egunetan Athleticek jokatu eban bigarren derbia izan arren, Osasunagaz baino, Errealagaz giroa gehiago berotuten dala esatea ez da esatea.

Aurten Bizkaia aldean gauzak nahiko ondo doazalako edo, giroan be nabaritu da lasaitasun hori. Halanda guzti, sarritan entzun behar izaten doguzan astakeria batzuk etorri jataz gogora.

Niretzat Osasuna eta Erreala futbol areririk dira, baina askorentzat futbol arerio izatetik aparte etsaiak be badira, eta

hori ezin izan dot inoz ulertu. Badakit talde honeetako zale-tu batzuek be gorroto berbera erakusten deusiela Athleticeri buruz berba egiten dabenean baina baten baino sarriago entzun dot euskaldun baten agotik nahiago dauala Real Madrid edo Rayo Vallecanok irabaztea beste ez dakit zein euskal taldek baino.

Nik argi daukat ezetz, nire ikurriñak hiru kolore daukazala (zuria, gorria eta orlegia) beste euskaldun batzuek Real Madrid edo Rayo Vallecanoren hori-gorria gehituko leuskioe antza.

Badakit Euskal Herriko talderik onenak, hiru talde garrantzitsuenen koloreak daroazala: kamisetan Osasunaren gorria eta Errealaren marra zuriak eta zelan ez, Athleticen praka baltzak.

Gora euskal futbol taldeak!

## ZERTZEAN



SAIOA LARREA



Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**B**edar-metea oparotasunaren ikurra begitandu jata beti. Aka-so, ganaduentzako jatekoa ziurtatzen ebalako eta ganadua izan dalako orain dala gitxi arte, aberastasuna baserri askotan. Abere edo azienda be deitzean jakie ganaduoi eta jakina da, izena izana dala. Maiatzean, ganadu ederrak ikusteko aukerea izango dogu Diman eta Zeanurin.

Horrez aparte, bedar-meta artistiko honeri, batzuek Estatu Batuetako indigenen tipi-aren antza topetan deusi. Etxea be bada, beraz. Eta etxeko txikiak bertan olgetako aukerea daukie, horrexetarako ipini dau eta Iker Yurrebasok Igorreko ludotekako umeen laguntzeagaz.

Euskaldunok beti agoan daukagun berbea da etxea, eta beti buruan daukagun esangura desbardinez betetako kontzeptua. Geu gara etxea: etxean esateko, gurean esaten dogu.

BEGITU honetan Begoña Pernasek bere artikuluan etxearen alde iluna dakargu eta gaur egungo gizartean jokatu ean dauan papera.

Oparotasunaren ikurra begitantzen jata bedar-metea. Baina, ai! Hau hutsik dago, metearen bozeto bat baino ez da: ez dauka bedarrik, ganaduak ezingo dira gizendu honegaz, kontzeptu hutsa baino ez da. Krisiaren ikurra?




**Lorategien Diseinu eta Gauzatzea**  
 Ureztaketa instalazioa  
 Mantenua eta Inausketa  
**LORAZAINTZA**  
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea  
 Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscl.com](mailto:gorosti@gorostiscl.com)


**Ortodontzia**  
 Implantateak  
 Estetika  
 Marina Urigoitia Aiderkoa  
 Odontologoa  
 Bidebarri 1, behea  
 48140 Igome-Bizkaia  
 T. 94 631 50 39  
 Kalejoko Zerbaita 110  
 R.P.S. 25/06

**EXCAVACIONES**  
**MARGOIZA**  
 Iñaki  
 Martín Garastiza  
 Ubideratzeak  
 Lurrerauzketak  
 Baso pistak  
 Ur Putzuak  
 Era guztietako hondeaketak  
 Bº URIBE - 48144 ZEANURI  
 e-mail: [margoizo@euskolnet.net](mailto:margoizo@euskolnet.net)  
 Tel. 607 272 424  
 610 271 128  
 Tel/Fax: 94 433 22 28

## ZEANURI

# San Isidro egunean, azokea eta idi-probak

Arratiako baserri giroko jairik handiena ospatuko da Zeanurin maiatzaren 15ean, San Isidro egunean.



Igaz San Isidro egunean artzaina ardiari ulea moztuten.

### Erredakzioa

Ospakizunak bezperan, maiatzak 14,e hasiko dira, abesbatzen kantaldi batez eta aizkolariakaz. Hurrengo egunean Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokearen XXX. edizinoa eta idi-probak.

### Egitaraua

#### Maiatzak 14, zapatua

18:30ean, koruak San Isidro

eleizan. Larrabetzuko Gaztelumendi Abesbatza, Bilboko Euserria Abesbatza eta Zeanuriko abesbatzaren kantaldiak. 20:30ean, Urrezko Aizkolariak. Final laurdenak frontoian.

#### Maiatzak 15, domekea

10:00etan, Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokearen XXX. edizinoa. Azokan hurrengo ekintzak egingo dira: ardiak eraistea, gaztagintzea, ardi moz-

keta lehiaketea eta artxo errearen dastaketea.

11:30ean, mezea San Isidro eleizan.

12:30ean, Arrikibar jantza taldearen saioa.

14:00etan, sari banaketea.

18:00etan, idi-probak.

1.500 kg.ko harriagaz: Iñaki Bidaurrezaga (Zamudio)- Benito Aldazabal "Kinki" (Zornotza).

750 kg.ko harriagaz: Julen Etxebarria (Zeanuri).

## ARRATIA

### Indarrak batzeako ahalegina Maiatzaren Lehenan Bilbon



Bilboko manifestazinoa.

### Erredakzioa

Bilboko manifestazinoa jentetsua izan zan, 15.000 lagun bildu zirala dinoe sindikatueta iturriak. ELA, LAB, EILAS, EHNE eta Hiruk alkarregaz ospatu eben maiatzaren lehena, 2004tik lehenengo aldiz, eredu ekonomiko honen "alternatibea" badala aldarrika-

tuz. CCOO eta UGT be alkarregaz joan ziran gobernuaren erreforma laborala bertan behera ixteko eskatuz. Jentearen erantzunagaz be pozik agertu ziran sindikatuetaoak. Sindikatu handi honeetaz ganera, CGT, CNT, JOC eta Etxeko Langileen Elkarteak agertu zituen euren aldarrikapenak manifestazinoan.

## DIMA

### Ganadu azokea

### Erredakzioa

Hilaren 8an, ganadu azokea izango da Diman. Urtero lez, asko eta asko izango da ikusgai egongo dan ganadua. Ez behiak bakarrik, behorak, ahuntzak, astoak eta beste abere asko egongo dira urtero jente asko batzean dauan azoka honetan. Moxal errea dastatu ahal

izango da eta arrastian artzai txakurrak erakutsiko dabe euren abilitadea behi, ardi eta antzarakaz.

### Ordutegia

10:00etan, azokearen hasierera. Goiz osoan zehar umeak zaldi ganean ibilteko aukerea izango dabe.

12:30ean, moxal erre pintxoak. Zozketarako tiketak bananduko dira. 13:45ean zozketea. 17:30ean, artzai txakurren erakusketea behi, ardi eta antzarakaz. Osteen, herri kirolak Arratiako Egoitza aurrean.

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA**  
Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak  
Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

*Pinturas Arratia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONSTUETAN  
ONDASUN BEGIZAZEN  
ASIGURUETAN  
Sabino Arana, 5-3. floor 94 673 71 41 - Faxa 94 673 94 01 - 48140 IGORRE

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**Elexalde**  
*Meri eta Josetxu*  
Pinturak (kolore guztiak)  
Egur babesleak  
Suteak eta behe-suak  
Garbiketa produktuak  
Lehendakari Agirre, 11 bis. • 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 673 62 34 • Fax 94 673 72 38

**indar**  
instalazio elektrikoak  
Bidosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
t. 94 655 47 19  
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak  
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94  
**Esposizioa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**ERREKONA**  
619342133  
errekona@hotmail.es www.errekona.com  
**Burdin lan orokorrak.  
Balaustradak, hesiak, burdin estrukturak, balkoiak...**

\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bajo • 48140 IGORRE (Bizkaia)  
• 94 631 92 00

**Erreka Garraioak**  
Mugikorra 629 465 335  
Branche auzoa, 12 LEMOIA  
Tfnua: 94 631 50 02 Faxa: 94 631 51 81

Emilio Goitia banatzaile ofiziala  
**San Miguel**  
Ardoak Edariak  
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

ARRATIA

# Aberri Egunerako deia egin zan Gorbeiatik

Erredakzioa

Arratiako Independentistak apirilaren 21ean, Pagomakurren batu (50 lagun inguru) eta Gorbeiatik kurutzera igo ziran, bertan Aberri Egunean Gernika edo Baigorria

joateko deia egiteko. Gorbeia, Oiz, Sollube, Koltza eta Gane-kogorta Bizkaiko bost deidar mendiak dira. Mendi honeetako tontorretan, suteak egiten ziran eta adarra jotzen eben Batzar Nagusiko kideak deitzeako. "Gure arbasoak halan egiten eben eta guk hau berreskuratu gura dogu" dinoe Arratiako Independentistak.

Aberri Eguna

Aprilaren 24an, Aberri Egunean "Argi Berdea independentziari lelopean" Independentistak Baigorri eta Gernikan batu ziran. Baigorri, Aberri Eguna izateaz



Gorbeia hurreratutakoak.

ganera Nafarroaren eguna bezalako eta Gernikan, bonbar-

daketearen 75 urte bete izan diralako aurten.

ARRATIA

# AEK-koak Korrikako argazki bila

Erredakzioa

AEK-tik deia egin gura deuse arratiarri, Korrika Arratiatik pasaukeran argazkirik eukitekotan, eurekaz kontaktuan ipinteko. Deitu 94 651 56 57 telefono-ra edo e-postaz arratia@aek.org helbide elektronikora bialdu argazkiok.



## ARRATIA

### Janlekuetako greba maiatzean

#### Erredakzioa

ELA, LAB eta UGT sindikatuak maiatzaren 2, 3, 4, 5 eta 6rako grebara deitu dabez eskoletako janlekuetako beharginak.

Sindikatuon esanetan, patronalaren jarrearen aurrean, mobilizazioa beste biderik ez dago. "Momentu honetan, mobilizazioak jarraitzen behartuta gagoz, gure ebatziak eta erantzunak gogorak izan behar dira" dinoe sindikatuetakoa.

Eusko Jauriaritzak agintzen dituan gitxieneko zerbitzuak ez dagoz ados. Sindikatuon ustez grebarako eskubidea urratuten dabez eta, zerbitzuok.

## ZEANURI

### Sabin Intxaurreagari omenaldia Joko Alaik

#### Erredakzioa

Aprilaren 9an Zeanuriko Joko Alaik Kirol Elkartek omenaldi bat eskeini eutsan bere bazkidea izan zan Sabin Intxaurreagari. "Mendi urteera egin zan, batzuk Saldropotik, eta beste batzuk Londogortatik abiatu ziran Aldaminepera. Han zugatza landatu eta errauts batzuk lurperatu zituen. Indarrak hartu eta gero, Aldaminera joan eta bertan omenaldi ekitaldia egon zan: bertsoak, kantak, berbak... Sabinen beste errauts batzuk aieratu ziran gero ekitaldia amaitzeko" azaldu deusie BEGIturi antolatzaileak.

## ARRATIA

### Zertuk begitu-lagunai neurriko kamisetea oparitu gura deutse

Begitu-lagunak mundu zabalean erakutsiko dabe gure irudia.

#### Erredakzioa

Oporretan begitu-lagunak kamisetea soinean daukiela, Arratiako aldizkaria ezaguna egingo da mundu zabalean. Baina kamisetok begitu-lagun bakoaren neurrikoak izan behar dira eta horregaitik alde aurretik eskatu behar dira, gizon ala andrazkoarena eta neurria (XS, S, M, L, XL, XXL) zehaztuz. Hau, telefonoz zein posta elektronikoz egin daiteke. Posta elektronikoz egiteko, idatzi begitu@topagunea.com helbidera datuok emonez, eta telefonoz egitekotan, 649 979 115 telefonora deitu behar da.

Opari hau begitu-lagunentzat baino ez da. Dana

dala, orain begitu-lagun egin ezker, kamiseteaz ganera, *Arratia Inguruko Hiztegia* eta aurreko urteotako produktuak jasoko dauz ondo etorri opari moduan begitu-lagun barriak.

#### Bainuetxean deskontua

Ez bakarrik begitu-lagunak, BEGIturen edozein irakurlek Areatzako bainuetxean % 15eko deskontua dauka, zenbaki honetan eta aurreko bietan dagozan kupoiak eroan ezker bertara. Hori bai, eskeintza hau hilegagaz batera amaituten da, maiatzaren 31n.



Kamisetearen irudia.

## IGORRE

### Piropo lehiaketeta

#### Erredakzioa

Igorreko jaietarako euskeraz idatzitako piroporik originalenaren bila dabiz Igorreko Euskera Planekoak. Horretarako maiatzaren 2tik hasita eta maiatzaren 27ra arte, lehiaketa bat antolatu dabe. Piropoa modu sortzaile, ez-sexista, adierazkor eta ludiko batez azalduta egotea sarituko da eta piropo saridunagaz Igorreko jaietarako pe-

gatinak egingo dabez. Parte hartu gura izan ezker, modu bi dagoz: bata mezu bat bidalita zuzerretik@euskalnet.net helbidera eta bestea, Kultur Etxean entregauta: gutun-azal baten barruan piropoa eta hartu-emonetarako datuak ipini beharko dira: telefonoa eta izen-abizenak.

Saria, Igorreko Kultur etxean zine sarrerak doban persona birentzat eta urte amaierara arte izango da.

## AREATZA

### Herritarren partaidetzarako sistema aldatuko da

#### Erredakzioa

Herritarren partaidetzarako azken foroan, partaidetzaren ganeko azterketa baten ondorioak aurkeztu ziran. Toki Agendako Ekintza Planeko batzarretan parte hartu dabena pentsetan dabe gai orokorregiak tratatu dirala batzarretan eta euren ekarpenak ez dirala lotu emoitza hautemongarriakaz. Horregaitik udalak batzar ireki baten parte hartzeako deia egingo deutse herritar guztiak benetan ze gai diran kezkarriak ebazteko, udalak jakitera emon dauanaren arabera.

Proposamena Kualitate enpre-

seak egindako eta Iritziak Batuzek jentaurrean aurkeztutako landa-azterketa baten emoitzea da. Azterketa horren arabera, Areatzako herritarrek pentsetan dabe Toki Agenda 21eko Plan barriko prozesu parte-hartzailean lortutako emoitza hobetu egin leitekezala. Hori dala eta, aurreikuspenen arabera, udal hauteskunde ostan, herritar guztiak zabalik egongo dan batzar bat egingo dala dinoe udaletik. Batzarra, foroetan aztertzeko gai interesgarrienak zeintzuk diran ebazteko, urte amaierara arteko egutegia egiteko eta arauak zehazteko izango da.

**laburmetraje lehiaketeta 011**

**sariak**

- > 18 urtetik beherakoentzat: 300€ bonoetan
- > 18tik gorakoak: bideo kamera eta afaria
- > Sari banaketeta bagilaren 12an izango da, 21:00etan

**baldintzak**

- > Euskeraz izatea
- > 2 eta 14 minutu bitartekoa
- > Egileak arratiarrak izatea

**gaia**

- > Librea (epaimahaiaren esku egongo da filmen bat lehiaketatik kanpo ixtea iraingarri gertatu leitekela ikusiz gero)

**epea**

- > Bagilaren 2a baino lehenago entregau behar dira, Igorreko kultur etxean (filma gutunazal itxi baten barruan entregau behar da. Gutunazal horren barruan: filma eta egilearen datuakaz beste gutunazal itxi bat)

**epaimahaia**

- > Arratiako ikus-entzunezkoetan adituak

Igorreko Udala  
Igorreko Euskera Planekoak

**igorreko san antonio jaiak**

ALEX TXIKON

# "Betikotik iges egin behar da, gauza barrizailleak egin"

Gasherbrum II-ko tontorra zapaldu ez badau be, Alex Txikonek espedizino honegaz etapa barri bat hasi daua dino. Edurne Pasabanegaz gustura ibili dan arren, bere momentua heldu dala sentiduten dau lemoztarrak. Gauza barriak egin gura ditu, inertziak apurtu bai mendian, bai komunikazinoan.

## Erredakzioa

### Mendi Amesgarriak amaitu barritan ze balorazino egiten dozu?

Aurten urte gogorra izan da, krisia dala eta, datak be aldatu ziran. Proiekzio honek beti antolatu izan dira zezeilaren azken astean eta martiaren lehenengoan, baina ni mendian nengoanez, aldatu behar izan da hori. Ganzabal Mendi Taldekoak gura izaten dabe neu egotea eta niretzat be egun garrantzitsua izaten da.

Jente aldetik arrakastatsua izan da. Lemoa futbol taldeak Federazio Kopako finala jokatu eban eguen baten eta justo egun horretan etorri zan Jordi Tosas eta hala ta guzti be 150 lagun batu

ziran. Askotan, Igorreko Kultur Etxeak antolatutako gauzetan gatxa da jakitea noz etorriko dan jentea eta noz ez. 150 pertsonatik gora etorri dira egunero batatz beste. Sano pozik gagoz.

Hizlariak sano mendizale onak dira. Silvia Vidal, berbarako, andrazkoen artean eskalada artifizialean onena dala mundu mailan esango neuke. Gero Jordi Tosas, Oscar Cadiach eta neu. Sano jentente potentea.

### Mendi Amesgarrietan Annapurna eta Shisha Pangmako dokumentala erakutsi dozu. Zergaitik ez G-Iren inguruko zeozer?

Hori dala eta, telebisteagaz arazo bat euki dogu. Nik grabautakoa ezin dot ipini inon be. Horregaitik



Alex Txikon porteetan.

"Everest-era oxigenoagaz, bide arruntetik eta diru publikoagaz joatea ez jata ondo iruditzen"

"EITBrako bideoak bidaltzen 4.000 euro gastau dodaz nire poltsikotik"

"Lemoako Udalak laguntasuna emon beharko leuskidala uste dot"

ipini nebazan argazki batzuk, bai Annapurna eta SPri buruzkoak. Gero, sorpresa moduan, G-IIn egon garanez, 12 minututako bideo bat prestatu neban. Oso polita, jenteari asko gustau jakon. **Gasherbrumera bide barritik eta neguan igo gura izan dozue baina ezinezkoa izan da tontorra zapaltzea. Ze sensazio itxi deustu espedizino honek?**

Espedizino moduan oso-oso arrakastatsua izan dala esango neuke. Neguko lehenengo saiakera izan da mundu mailan Gasherbrum-Ilra. Esperientzia barria danontzat. Positiboa izan da. Lar litzateke lehenengoz joan neguan eta tontorra egitea. Adibidez Simone Moro eta honek, egin eben tontorra G-I mendian, baina ez zan izan joan eta egin! Simone Moro egin eban lehenengo igoerea neguan SPra, Makalura be lehenengo igoerea neguan Morok egin eban eta G-Ilra 3 saiakera egin ostean, mendiz aldatu eta G-lera igo zan.

Urten aurretik esaten neban behe kanpamentura heltzea be ez zala gitxi izango. Dana da abentura bat, oso-oso gatxa da. Esaterako, Simone-eta helikopteroz joan ziran. Guk dana oinez egin dogu.

Ekonomikoki be askoz karuagoa izan da espedizino hau beste edozein baino. Normalean kostetan dana halako bi edo hiru. Zamaketariak be ordaindu behar jakie normalean baino bi edo hiru

aldiz gehiago. Dana oso garestia izan da, baina oso positiboa.

### Gösch eta Rousseau-gaz egiteko beste proiekturik badaukazu ala gauza puntuala izan da hau?

Proiektu pare bat daukagu. Laster K-2ra joango gara. Asmoa da autoz urtetea Lemoatik, aizkoran egitea, gero Gasherbrum mendietara aklimatatzera joan eta gero udako saiakera egitea K-2ra bide barri batetik, ekialdeko paretatik, estilo alpioan.

Eta datorren neguan Pakistanen egongo gara aurtengoa amaitzen saiatzeko. Alkizabal eta Umpro babesleai esker izango da posible espedizino hori.

### Pasabanegaz lana amaituta dago, ez?

Edurne izan da beti izarra. Nik hori argi daukat eta sano gustura egin dot lan berarentzat eta taldearentzat. Sano gustura ibili gara. Baina urteotan nekatzen hasi gara zentzu guztietan. Nik nire bidea egiteko gogoia daukat. Edurnegaz igaz amaitu genduan proiektua, 8.000ko mendiak. Eta berak babesleak dituan, luzatuten dabil.

Baina nik uste dot negu honetako espedizinoagaz Alex Txikonen aroa edo etapa hasita dagoala. Datorren udan, autoz joateko eta gero bide barri bat zabalduteko asmoa daukagu. Gauza desbardinak egin behar dira, iges egin betikotik, gauza barrizailleak egin.

Horretan saiatu behar gara Euskal Herrian, ze nire ustez, behin eta barriz gabiz egiten orain 30 urte egiten zana. Eta hori bitarteko gehiagogaz eta diru publikoagaz. Barriz Everest-era joatea oxigenoagaz, bide arruntetik eta diru publikoagaz... ez jata ondo iruditzen, apur bat zorrotzagoak izan behar gara!

### Proiektu biak Gösch eta Rousseau-gaz izango litzatekez, ezta? Talde bat egin gura dozue?

Bai nazinoarteko talde bat, oso

**BATZ**  
BATZ, S. KOOP.  
Tornea suzoa, 32  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,  
euskeraz eginez

Enbatare  
Batzen gaitu

MONDRAGON

**GALANTA**  
Barrutik janzteko  
Zugandik saro hurbil

Lehendakari Agirre 23, Igorre  
Telefonoa: 94 631 90 08

Bizkaifisios SLK  
bi zentro ditu

Fisioterapia  
Zentroa  
Igorre

Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari  
Klinika

Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1, Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com





Gösch, Txikon eta Rousseau.

gustura ibili gara eta jente gehiago sartu edo urten ahal da... Edurnegaz bezala danak dauka bizi bat. Lehenengotik jaio egiten da, Edurnegaz egindako lanaren kasuan, 2006 urtean taldea suertau zan; gero bizitza bat dauka, espedizino batzuk egiten dira, helburua izan zan Edurnek hamalau 8.000koak egitea, igaz amaitu genduan, eta nire ustez, nire hartu-emon profesionala Edurnegaz hor amaitu da. Ez nago guztiz ados zein ildotik dabizen.

Baina oso hartu-emon ona daukagu. Hurreratu nintzan aireportura agur esatera urten ziranean. Benetan pena emon eustan ez joateak, azken baten talde hori familia bat izan da niretzat bost urtez. Denpora asko pasau dogu alkarregaz, baina bakotxak bere bidea dauka bizitzan. Beti gogoratuko doguz mendian alkarregaz pasautako momentuak eta lagunak gara.

**Gösch eta Rousseau ideologia eta proiektuen aldetik zure bidetik doaz?**

Bai. Horregaitik daukaguz bide barriak zabaltzeko proiektu bi horreek.

Nik uste dot, aurten egin doguna, irudiak internetetik bidaltzea, oso ona izan dala. 20.000 bider ikusi da bideo bakotxa. Sano polita da: ni hor agertzen naz euskeraz berba egiten. Jarraitu gura dogu ildo horretatik.

**Kazetari lana be egin dozue bideoak bidaltzen.**

Bai eta lan ona, ze bestela ez litzateke urtengo hainbeste lekutan. Nik 4.000 euro gastau dodaz nire poltsikotik irudi horreek bialtzen. MB bakotxa 7 euro da eta 11 bideo agindu dodaz. ETBk ez deusta inongo laguntasunik emon. Nik bialtzen dodan dana gustura hartzean dabe, bideo politak dira eta askotan emon dabez. Baina ez deustez ezta bidalketa gastuak pagau.

**Erakundeetatik laguntza gixti, beraz.**

Baina nire ustez aldaketa bat egon behar da. Jenteari gustetan jako informazioa interneten eu-

kitea. Nik uste dot eboluzino bat egon behar dala. Ezin da jarraitu betiko bideetatik informazioa emoten. Familiak, lagunak eta danak oso gustura hartu dabez guk bialdutako irudiak. Bideoak EITBn dagoz eta 30.000 bisita euki dabez.

Laguntasuna pitin bat eskasa izan da. Lemoako Udalak be beste kirol batzuk lagunduten dauz baina ni herri kiroltan nago eta mendian eta laguntza emon beharko leuskidala uste dot. Nik beti esaten dot Lemoakoa nazala.

**Babesleen papela zein da?**

Oraingo espedizinoan Alkizabal eta Negarra izan doguz babesle. Horreei esker izan da posible. Igaztik euki dot Umpro-gaz akordioa eta eurei esker izango dira posible datorren udako eta neguko espedizinoak.

Babesleen lana gaur egun oso garrantzitsua da. Azkenaldian espedizinoetan lanean ibili naz, dana debalde euki dot, nik prestatzen nebazan nire erropak, etortzen ziran bidaien bila eta Kat-

mandun ikusten nebazan gero. Pagotxa! Eta ganera soldateagaz.

Baina orain, neuk pagau behar dot dana. Neguan joatea logistika aldetik oso konplikaua izan da, eta diru aldetik espedizino normal bat kostetan dana baino hiru aldiz gehiago. Eta gauza polit bat egiteko -bideoak bialdu eta abar dirutzea gastau dogu.

**8.000ko mendietara 18 espedizino inguru, 8 tontor eta ez jatzu errentagarri ateratzen holango espedizino bat!**

Ez, nik neure lana daukat. Bada goz batzuk, nire moduan, honetatik bizi gura dabenak. Baina hasten bada diru gehiago sartzean, dana popatik hartzera joango da. Hobeto gabiz holan, diru gitxigaz.

Everest-en orain jentetzea egongo da; beste 8.000 m.tako mendietan barriz, ez dago jentetik. Espedizino komertzialak dagoz, enpresak diru asko ateraten hasi dira eta 8.000 m.tako mendi guztietara hedatzen dabiz. Zentzu horretan be putada bat da.

**Baina ez dabe lortuko komertzializatea.**

Bai. Lortu da. Hori gertatzen da Everest-eko tontorrean. Gizartean ikusten dana mendira hedatuten da.

**Zein adin tartean egin daiteke kirol hau?**

Oraintsu 50 urteko amerikar batetik zabaldu dau bide barri bat. Kirol honetan ez dago epaile bat esaten dauana honek balio dau eta honek ez. Kirol eskaladan badago, araututa dago, baina mendian ez dago holangorik.

**Goi-mendizaleok, toreatzaileen moduan, heriotzeari keinuak egiten zabizie? Hori**

**da menpekotasuna sortzean dauana?**

Nik beste era batera ikusten dot. Ni hego-poloan egon nintzan 2006an. Joan nintzan itsasontziz eta itsaontzi baten ez nintzan egundo be igo. 10 m.koa zan, eta olatuak ganetik pasetan ziran, ura 0 °C gradutara, gu han belkaz... marinelak ginan han, lanean itsasontzian. Ha ez zan nire medioa eta barkuari ondo helduta ibiltzen nintzan, jausteko bildurragaz. Baina egunak pasau ahala gozatuten hasten zara eta apurtxu bat kontroletan.

Mendia guk kontroletan dogun medio bat da, nahiz eta zailtasun tekniko handikoa eta arriskutsua izan. Arriskua dago, baina hemen lanean gabizanean be bai.

**Bai, errepidean gertatzen dan moduan, ezta? Hildakoak gertatu arren, jentek medio hori kontroletan dauala sentiduten dau.**

Horixe, kontroletan dogun medioa da. Ez dot esango % 100ean, ze arriskutsua da. Bakarrik Annapurnan pentsau neban hasi baino lehen, ea danak bueltetan garan. Oso arriskutsua da mendi hori, baina bestela igual pasarte txar baten bai pentsetan dozu hori. Orokorrean ez dogu holangorik pentsetan.

**Aizkorea alde batera itxi dozu?**

Ez. Eta aurten beste aposturen bat jokatuetea gustauko litxakit eta gero Bizkaiko txapelketan parte hartzea. Euskal Herriko txapelketan ezin izango dot parte hartu kanpoan egongo nazalako. Nire ustez aurten lan ona egingo neuke Euskal Herriko txapelketan baina dana ezin da.



# ALKIZABAL

www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

## Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

**BOLUNBURU POLIGONOA**  
Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkaia)



**KÄRCHER**  
Banatzaile ofiziala



















- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.

## PELOTEA

**Dima, Lemoa eta Zeanuri Herriarteko txapelketea jokatuten dabiz****Herriartekoa olgetan dabiz Dimako pelotariak.****Erredakzinoa**

Bizkaiko Herriarteko txapelketea hiru kategoriatan jokatuten da: Kadeteak, Gazteak eta Senior kategoriatan hatan be. Txapelketan parte hartu ahal izateko kategorio guztietan euki behar dira pelotariak. Arratiatik Dima, Lemoa eta Zeanuriko pelota eskolak hartzean dabe parte. Igorrek aurten ez dauka ez kadeterik ez gazterik eta ezin izan dau izena emon. Igazko sailkapenaren arabera, Zeanuri final zortzirenetan, Dima hamaseirenetan eta Lemoa hogeta hamabirenetan hasiko dira jokatuten.

**Lemoa**

Joan eta etorriko partiduak izaten dira eta pelota eskolak aurreko urteko sailkapenaren arabera hasten

dira jokatuten. Lemoak apirlean izan ebazan lehenengo partiduak Muskizen kontra. Joaneke guztiak irabazita eta bueltan hirutik bi (kadete eta gazteak mailakoak) jarraituten dau lehiaketan. Lemoaren hurrengo aurkaria Barakaldo da. Joaneke partiduak maiatzaren 1ean izan ebazan eta bueltakoak 8an izango ditu.

**Dima eta Zeanuri**

Dimak Mungiaren kontra jokatu ebazan lehenengo partiduak. Joanekean, Mungiak hiru partidutik bi irabazi zituan. Kadete eta Gazteak kategorietan irabazi eban Mungiak, Nagusiak kategorian, barriz, Dimak. Bueltakoak maiatzaren 5ean izango dira. Irabazleak Zeanuriren kontra jokatu beharko dau final zortzirenetan. Finala maiatzaren 26an jokatuko da.

## BOLA TXAPELKETEAK

**Txapelketea amaituten****Maite Arrizabalaga**

Bizkaiko Taldekako Bola Txapelketa amaituteko dago. Hiru bolaleku falta dira eta Arratiako taldeak azkenengo ahaleginak egiten dabiz. Apirilaren 16an, Bernagoitin (Zornotza) izan zan lehiaketea. Lemoa seigarren postuan gelditu zan eta Oba atzetik, zazpigarrenean. Azkenengo botaldia, Zornotzako San Bartolome bolalekuan izan zan pasa dan zapatuan, aprilak 30. Obak zortzigarren postua lortu eban, Lemoaren aurretik.

Momentu honetan, sailkapen orokorrean Lemoa zortzigarren postuan dago eta Oba barriz azkenengoan. Izan be, lehenengo botaldian jokalaria bi gitxiagoga ibili zan Dimako taldea eta horrek puntu asko galdu arazo eutsan taldeari. Dana dala, hurrengo talde biak, hamar eta hamalau puntu baino ez deusiez ateraten. Aldea ez da handia eta hurrengo hiru bolalekuetako botaldietan zer pasetan dan ikusi beharko da.

**Obako bolalekua**

Sailkapenean lehenengo, Zornotzako San Migel taldea dago. Igaz be, eurak irabazi eban lehiaketea. Barkarkako sailkapenean, San Migel taldeko Beñat Gorospe dago lehenengo postuan. Euskadiko txapelketara sartzeako arratiarrak be hor dagoz lanean. Hilaren 28an jakingo da zeintzuk joango diran.

Maiatzaren 14an Oban izango da hurrengo botaldia eta zapatuan, hilak 21, Lemoan. Azken botaldia, 28an izango da San Migelen.

## FUTBOLA

**Denporaldia azkenetan****Maialen Egileor**

Lemoak bardindu egin ditu jokatutako azken derbi biak: lehenengo bana Alavesen kontra eta bigarrena husna Eibarren aurka. Holan, bederatzigarren postuan jarraituten dau 52 puntugaz denporaldia amaituteko bi jardunaldi bakarrik geldituten diranean. Ostera gogoratu Lemoak Federazio Kopa ezin izan ebala irabazi joaneke partiduak 0-2 irabazi arren etxean 1-4 galdu ebalako Puertollanoren kontra.

Arratiako mutilak ostera jaitsiera postuak atzean itxi dabez momentuz, zazpi puntura hain zuzen be. Hamahirugarren dira orain sailkapenean 36 puntugaz. Hori bai, puntu bardinak daukiez burrukan dagozan lau taldek. Euren ganetik dago Iturrigorri, Arratiaren azken aurkaria. 0-0 bardindu eban Bilboko taldearen kontra eta 3-2 irabazi eutsan San Vicenterik.

Arratiako neskek partidu bakarra jokatu dabe Aste Santuetako oporrak dirala eta. Barakaldoren kontra izan zan eta 3-1 irabazi eban gureak. Holan, seigarren postuan jarraituten dabe 44 puntugaz.

**Balneario Areatza**  
*Areatza*  
**Hesperia Areatza**  
Hotel Balneario

**begitu**  
amaitu utziko ezabatu

**BEGITU**ren zenbaki honetan eta aurreko bietan atera doguzan kupoi biak ebagi eta Areatzako bainuetxera joan ezkeroko % 15eko deskontua eukiko dozu.

> Eskeintza hau maiatzaren 31ra arte da baliogarria.

## Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Egarren Hezkuntza, Baxilegokoak, Hezkuntza zikloak

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

**I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

**J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

**Zugaitik BEGITUten dogu**

A.P.I. 495

[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)

Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igoerre

**Tfnoa: 94 631 80 04**

**ellauri**  
HOTEL

*Naturazko ospitalea*

Landa Turismoa  
Erpinak Zerbitzuak

Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | [ellauri.com](http://ellauri.com)

## MENDIA

# Anboto Kilometro Bertikalak 10.000 euro bananduko ditu saritan

Izena emoteko epea zabalik da eta [www.brinean.com](http://www.brinean.com) webgunean egin daiteke.

### Erredakzioa

Lasterketea urri bigarrenaren 1ean izango dan arren, zabalik da IV. Anboto Kilometro Bertikalean parte hartu ahal izateko izena emoteko epea, bagilaren 30era arte. Izena emotean 20 euro pagau beharko dabe federauak eta 25 federauta ez dagozanak. Gehieneko partaidetzea 350 lagunekoa izango da. Lasterketa hau Espainako Koparen zirkuituan sartuta dago, eta aurten,



Igazko irudi bat.

lehenengo aldiz, Lasterketa Bertikalen Euskal Txapelketa izango da.

### Irabazleak 2.700 euro irabazi ahal ditu

IV. edizino honetan, Anboto Kilometro Bertikalak 10.000 € bananduko ditu saritan lehen sailkatuen artean. Irabazleak, 2.700 € irabazi ahal ditu: 1.500 € garaipenagaitik eta beste 1.200 € errekorra gairiditu ezker. Ganera, antolakuntzak opariak bananduko ditu partehartzaile guztien artean.

## RALLYSTONE

# Areatza eta Zeanuriko pilotuak hartu eben parte Rallystone 2011 n

### Erredakzioa

Rallystone 2011 pasau zan Arratiako herri batzuetatik aprilaren 29ko arrastian. Hirurogeta hiru partaide izan dira aurten, tartean lau arratiar auto bitan. Areatzako Iban Eguskiza eta Oskar Padillak BMW E-21 auto bategaz hartu eben parte 14. eginez. Eta Miguel Angel Arenas eta Txomin Goti zeanuriztarrak Porsche 924 bategaz, baina ezin izan eben proba amaitu autoak arazo tekniko batzuk izan zituan eta. Iker Reketa BMW 325 baten pilotua izan zan Rallystone 2011ko irabazlea.

### Zazpiretatik zortziretara egon ziran gurean

Lasterketeak Bilbotik urten eban arrastiko 16:00etan, eta Arratian Bikotxganetik sartu zan zazpirak aldean. Handik, Areatzara, Zulaiabar, Zeanuri (plazea), Undurruga, Arratiano jatetxea –hau zan lekurik onena lasterketea ikusteko– Lamin-dao, Dima, Bargondia, Dima eta Igorreko bariantatik Gemikarantza joan zan. Gemikan geldialdia egin eta Bilbora bueltau ziran auto klasiko honeen pilotuak.

Hurrengo egunean, Gipuzkoa eta Nafarroatik ibili ziran autook eta Bilbon amaitu zan domekan, maiatzak 1 Rallystone 2011.

**Arratiako Musika Eskola**  
IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

Epea: maiatzean  
Tlfnoak: 94 673 92 05 / 656 71 61 83  
[info@interklabe.com](mailto:info@interklabe.com)

**25** URTE

## ERROTAK

# Errotarik errota, Zeanuri arakatzen

Zeanuriko Erroten VI. Ibilaldia maiatzaren 8an izango da.

**Jon Urutxurtu**

Gure geografiako ingurumariak ezagutzeko erarik egokiena oinez ibiltea eta bazterrak arakatzea da. Eta aukera hori eskeintzen dabe maiatzaren 8rako, Ipizki eta Joko Alai alkarteak Zeanuriko Erroten VI. Ibilaldiaren antolaketeagaz.

Oinezko martxa honegaz antolatzaileak bilatzen dabezan helburuak honako honeek dira: herritarrai zein kanpotik hurre-ratzen diran bisitariari Zeanuri eta bere auzoak ezagutzera emotea; eta, Zeanuriren historian errota izan daben garrantzia ezagutara-zotea. Ez dira gitxi, izan be, herri honetan ezagutzen diran edota han-hemenka azaltzen diran erro-tak edo erroten arrastoak: guztira hamazortzi —gehienak bertan behera itxita, baina beste batzuk zaharbarrituta—, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar hamaika-ren ondotik igaroko dira ibiltariak eta bitan —Ibargutxin eta Olabar-rin— sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe.

**Umeentzat ibilbide berezia**

Aurtengo ibilbidea igazko berbera

**Olabarriko errotea.****Argazkia: Jon Urutxurtu.**

izango da, 18 kilometrokoa, baina umeentzat edo ondo prestatuta ez dagozanentzat laburragoa, 12 kilo-metrokoa, egiteko aukerea be es-

keintzen da, jan-edana bananduko dan lekutik helmugara zuzentzen dana. Urteerea herriko plazan izan-go da, goizeko 09:00etan.

## Ibilaldiari buruzko zehetasunak

- \* Eguna: maiatzaren 8a, domekea.
  - \* Izena emotea: 08:30etik aurrera, herriko plazan. 2€.
  - \* Urteerea: 09:00etan.
  - \* Ibilbidea: 18 kilometro inguru; ibilbide laburra: 12 kilometro.
  - \* Jan-edana: Alkiberren jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantábrica-k.
  - \* Errotak lanean: ibilaldiaren hasieran Ibargutxiko erroten eta amaieran Olabarrikoan sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe ibiltariak.
  - \* Antolatzaileak: Ipizki Taldea eta Joko Alai Alkartera.
  - \* Laguntzaileak: Gastronomía Cantábrica, Lankidego Lantalde, Zeanuriko Udala, Gorbeialde, Sagarna Txokoa, Zeanuriko Jubilauen taberna eta Arratiako Gurutze Gorria.
- Informazio gehiago: [www.ipizki.com](http://www.ipizki.com) edo telefono honeetan: 653016117 / 946739287.

**Ibiltariak.****Argazkia: Jon Urutxurtu.**

## BIZKAIERIA

# Batua-bizkaiera Bihurtzailea aurkeztu dau Azkue Fundazioak

**Erredakzioa**

Azkue Fundazioaren presidentek, Bizkaiko Aldundiko Kulturako Dipu-tadua Josune Ariztondok eta ELEKA Ingeniaritza enpresako Iñaki Irazabalbeitiak Batua-Bizkaiera Bihurtzailea aurkeztu eben apirilaren 6an. Euskera batuan idatzitako testuak automatikoki bizkaieraz emoteko eta alderantziko prozesua egiteko tresna bat da bihurtzaile hori.

"Opentrad B" izeneko bihurtzailea Azkue Fundazioaren zerbitzarian egongo da eta oso tresna baliagarria izango da nor-

banakoentzat, enpresentzat, irakasleentzat, komunikabideentzat, argitaletxeentzat edo herri administrazioarentzat, euskera batua edo bizkaiera erabili gura eta bietako bat ondo ezagutzen ez dabenean.

Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera, bizkaiera egiten dabenen kopurua asko handitu da azken hogeitau urteetan (1991ko % 16tik egungo % 31ra pasau da), eta, Bizkaiko Lurralde Historikoan erabilteaz gain, Gipuzkoako eta Arabako eskualde batzuetan be erabilten da.

## GAZTEA LEHIAKETEA

# Larregi taldeak Entzuleen Saria irabazi dau

**Erredakzioa**

Gaztearen XX. Maketa Lehiaketako Saria Encore talde bilbotarrak eroan badau be, Arratiako Larregi taldeak eskuratu dau Entzuleen Saria. Ganera, jentearen parte hartze handiagaz lortu dabe sari hau. Izan be, 9.000 boto jaso ziran danetara Entzuleen Sarirako hautaketan.

Epaimahaikideak holan azaldu-ten dabe Larregi taldearen arrakastea. "Ez da harritzekoa Lemoako laukoteak Entzuleen Saria irabaztea, primeran ordezkatzan ditu eta rock euskaldunaren jokera erritmikoak eta melodikoak. Konposizio soiletatik abiatzen badira be, abesti-proiektu bakotxa erritmoa, melodia eta rock buztarketa oreka-tu eta egokiagaz amaitzen dau taldeak. Erraz gogoratzeko moduko kantuak dira eta erritmo erdien eta azkarren artean mobiduten dira. Azken baten, rockari heltzean deusie bere zentzurik zabalenean,

konposizio bakotxaren indarrean oinarrituta". Saria 2.000 eurokoa izan da.

**Bideak zabalduko ditu sariak**

Entzuleen errekonozimientua izateak taldeari bideak zabalduko deusazala uste dabe Larregi taldekoak. Izan be, lehiaketari esker, askok entzun dabe taldearen lana eta gustau egin jako lan hori jenteari. "Sari honek taldearen ge-roa markauko daualakoan gagoz. Jenteak gure lana balorau dau eta eskerrak emon gura deutseguz. Sano pozik gagoz" azaldu deutso BEGITURI Jon Rodriguez "Basto" Larregiakoak.

**Larregi taldekoak.**

## LEHIAKETEA

# Kartel lehiaketea Lemoan

**Erredakzioa**

Lemoako Udalak jaietarako kartel lehiaketea antolatu dau. Kartelok sinadura barik aurkeztu behar dira eta eskuz zein ordenaga-

iluz egindako kartelak onartuten dira. Kartelean "LEMOAKO JAIK 2011" inskripzioa agertu behar da derrigor. Bagilaren 30era arte dago zabalik lehiaketan parte hartzeako epea.

## ARKIKUTA

### Ardo dastaketeagaz hasi da hile kulturala

#### Erredakzioa

Arteko Kirol Kultur Taldeak maiatza hilabete kulturala izan daiten, hainbat ekintza prestatu ditu. Aprilan hasi dira ekintzok ardo dastaketeagaz, maiatzaren 28an amaituteko bertso bazkariagaz. Tartean, alkar-tearen logo barria aukeratu dabe lehiaketara aurkeztutakoan artean.

#### Egitaraua

##### Maiatzak 8, domekea

10:00etan, argazki rally-a.

12:00etan, logo aukeraketea plazan.

##### Maiatzak 13, barikua

20:30ean, Alex Txikon mendizale lemoztarraren berbaldia ludotekan.

##### Maiatzak 14, zapatua

18:30ean, umeentzat Zurrumuru taldeko ipuin kontalaria ludotekan.

##### Maiatzak 28,

Fronteniseko finalaren ostean, kalejireta eta bertso bazkaria Herriko Bentan. Bertsolariak: Unai Iturriaga eta Jon Maia. Sarrerak maiatzaren 14ra orduko erosi behar dira Herriko Tabernan.

## ARRATIA INGURUKO HIZTEGIA

### Arratiako Hiztegiaren 2. edizioa salgai

#### Erredakzioa

Liburudendetan da *Arratia Inguruko Hiztegiaren* 2. edizioa. Holan esan eban Angel Larreak bigarren edizio honen aurkezpen ekitaldian. Ekitaldia apirilaren 13an izan zan Bizkaiko Foru Aldundiko liburutegian. Han, egileak batera, Miren Dobaran Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia, Aitor Sorriketa Arratiako Udalen Mankomunitateko presidentea eta mankomunitadeko udal-tako alkateak egon ziran.

"Hiztegi batez ez dot ikusi holaringo markarik aspaldi. Hiztegiaren lehen edizioa salmenta errekor bat izan da eta hilabete baten edizio osoa agortu zan" esan eban Dobaranek. Angel Larrea egileak zementuaren 25ean salgai ipini eta abenduaren 28an agortuta egoala zehaztu eban. Hori holan izanda, "Euskal Herriko leku estrategiko askotan falta

izan da" eta horregaitik ebatzi ebela bigarren edizioa kaleratzea azaldu eban Miren Dobaranek.

#### Zuzendua eta osotua

Bigarren edizioan lehenengoan agertutako akats batzuk zuzendu ditue egileak. "Lehenengo edizioan txirri-txirria ilustretako saltamatxinoa agertuten da. Bigarrean, akats hori zuzendu dogu" azaldu eban Juanxu Rekalde egileak. Beste akats batzuk be, batez be gaztelania-euskera eranskinean egozanak zuzendu dabezala esan eben egileak.

Zuzendu bakarrik ez, osotu be egin dabe hiztegia. Holan 100 eta 150 arteko berba barri sartu dabez, gehienbat etnobotanikakoak, baina baita gazteen argota eta kaleko berba zakarrak, hau da, "sexuagaz lotutako berba 'berdeak'".



Arratia Inguruko Hiztegiaren egileak ordezkari politikoakaz.

Ganera, 1846. urteko Arratia eta Bediako merindadeetako mapa inedito bat agertuten da edizio osotu honetan.

Hiztegi hau "benetan altxor etnografikoa" da Dobaranen berbetan.

#### Beharra ez da amaitu

Foru Aldundikoak hurrengo pausua hiztegia interneten ipintea dala esan eban. "Mankomunitatea eta danak batu behar gara produktu hau interneten eskura izan daien gazte guztiak".

Egileak Arratiako berbetea jasoten eta bultzatzen jarraituko dabe. "Gure asmoa datorren urtean hiztegi honeri atarramentua ateratea da eta monografikoak argitaratuko doguz. Lehenengo, Arratiako gazteen kaleko berbetea izango da eta bigarrena umeen berbetea. Eureka batera Arratiako sendabedarrak, berba ineditoak" esan eban Angel Larreak.

## HATOR HONA

### Argentinan euskal kultura erakusten

#### Erredakzioa

Euskerea, euskal jantzak, euskal musika, gastronomia edo euskal kirolen inguruko ezagupenak daukien 18 eta 30 urte bitarteko gazteak, Argentinan egonaldia egin ahal dabe Hator Hona proiektuagaz. Necocheako (Argentina) Euzko Etxea euskal etxean, 2004. urtean martxan jarri zan Hator Hona proiektuak emoten deutse aukera hori. Proiektu honetan, orain arte 51 gazte euskaldunek hartu dabe parte eta euren artean 5 arratiar.

Necochearaino (Buenos Aires, Argentina) biajea norberak ordaindu behar dau, beste guztia barriz, osatua, euskal etxean parte hartzean dauan familia baten etxea, eta bazkaria, harrera familiaren gain dago.

Izena emoteko epea maiatzaren 13ra arte da eta egonaldia garagarilaren 15etik abuztuaren 7ra izango da.

Beste argibiderik gura izan ezke-ro hatorhona@gmail.com era idatzi edo [www.hatorhona.blogspot.com](http://www.hatorhona.blogspot.com) konsultau.

## DUNBA

### Arteako Zinemaldia

#### Arteako eskolea

Kaixo, gu Arteako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak gara.

Goya sariak, zezeilaren 14an izan ziran eta Oskarrak, barriz, zezeilaren

27an. Eta zergaitik ez Arteako artistetan be zinema sariak banandu? Holan sortu zan Arteako Zinemaldia.

Herriatik kartelak ipini genduzan, ekitaldiaren barri emoteko. Zine-

maldian "akomodadoreak" egon ziran eta sarrerak banandu ziran. Baina lasai, honeek doban izan ziran! Benetako zinemaldia emoten eban!

Eskola osoak parte hartu eban: mozorroak egiten, musika eta koreografiak prestatzen, eszenatokia apaintzen, ekitaldiaren gidioa idazten, hau da, Arte-Hollywooderatzen.

Jaialdia martiaren 4an ospatu genduzan eskola barriko goiko pisuan. Alfonbra gorriak ondo etorria

emoten eutsen bertara hurreratu ziran konbidau eta sarituai. Txarteldegian sarrerak hartu eta "akomodadoreen" linternen argia jarraituz, konbidau bakoitxak bere eserlekua topau eban.

*Metro Goldwyn Mayer*-en musikeak hasierara emon eutsan Arteako Zinemaldiari. Argiak eta fokoak piztu ziranean, zuzendaria sariak banatzen hasi zan:

Sariak honako honeek izan ziran: 2 eta 3 urtekoak, *Nemo* filmaren mozorroa, pelikula onenari saria.

4 eta 5 urtekoak, *Bob Esponja* marrazki bizidunen mozorroa, mozorro politenari saria.

1. eta 2. mailakoak, *Chicken Run* filmaren mozorroa, personaje ausartenari saria.

3. eta 4. mailakoak *Piratas del Caribe* filmaren mozorroa, musika onenari saria.

Gu, hau da 5. eta 6. mailakoak, *Avatar* pelikulearen mozorroa eroan genduzan eta efektu berezien saria irabazi genduzan.

Sari hau irabazteko, lan handia egin behar izan genduzan. Alde batetik, mozorroa prestatu eta bestetik musika eta koreografia aurrera eroan.

Mozorroari jagokonez, gure filmaren personajeak (*Avatar*) urdinak diranez, kamisetak eta prakak kolore horretaz tintau genduzan. Europa honeen genetrik, plastikoz egindako



gona marroi bat jantzi genduzan eta gonatik buztan urdin, luze eta ikusgari bat urtetzen zan. Hau guztia, peluka luze eta baltz batez, eta arpegia urdinez margoztuta osatu genduzan. Benetako filmaren zuzendariak be, pelikularene protagonistak izateko aukeratu gintuan!

Musikeari jagokonez, Lady Gaga-ren *Poker Face* kanta aukeratu genduzan, gure koreografia prestatzeko. Abesti honek, gure mozorroari, adierazo behar eban indarra eta energia emon eutsan.

Aitatu beharra dago be, sari berezi bat banandu zala. Hau, mozorrotuta eta gure jaialdian parte hartu eben gurasoai emon jakien.

Dana itzel urten zan!

Jaialdi amaieran, gurasoak prestatutako txokolate beroak, ekitaldia biribildu eban.

Bukatzeke eskerrak emon gura deutseguz, Arteko Zinemaldia aurrera eroaten lagundu euskuen guztiai, eta hemendik hurrengo urteko zinemaldiaren konbidapena zabaltzen deusuegu.



Arteako 5. eta 6. mailako ikasleak mozorrotuta.

## AGENDEA

**MAIATZAK 3  
BEDIA**

17:00etatik 20:00ak arte, maiatzak 13ra arte: 2010eko Gabonetako ekintzen argazki erakusketea liburutegian.

Kirolarientzako osasun azterketarako izen emotea.

**MAIATZAK 4  
BEDIA**

19:00etan, Irakurle Kluba. Patxi Zubizarreta egongo da *Joan* liburuz berba egiteko.

**IGORRE**

20:00etan "Zugan ni" antzerki lehiaketea Kultur Etxean.

**MAIATZAK 6  
DIMA**

19:00etan, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa.

**LEMOA**

22:00etan Feiz no mor taldearen kontzertua. Karabie Gaztetxean.

**MAIATZAK 7  
DIMA**

23:00etan kontzertuak Gaztzean. Foxy Ladies, Sermond's eta Materia Cris.

**IGORRE**

Kino Mendi Taldeak antolatuta, eskalada ikastaroa. Atxarteko lehen ezproia.

22:00etan, zinea *El discurso del rey* Kultur Etxean.

**LEMOA**

Ganzabal Mendi Taldea. Deiarar mendiak. Kolutza (879 m.).

**MAIATZAK 8  
ARTEA**

10:00etan, argazki rally-a. 12:00etan, logo aukeraketea plazan. Arkikutak antolatuta.

**DIMA**

10:00etan, ganadu azokea. 17:30ean, artzai txakurren erakusketea eta herri kirolak. (Ikusi egitaraua 5. orrialdean).

**Gabacho Connection taldea Bixer tabernan hilaren 7an**

Ez da lehenengo aldia izango Areatzako Bixer tabernan joko dauana talde honek. Oraingoan Flamenko-jazz estiloga gaz datoz. Vincent Thomas bateria eta Arratiako Musika Eskolako irakaslea da talde honeen partaideetako bat. Willy Muñozek pianoa eta tekladuetan, Eric Oxandaburuk kontrabaju eta baju elektrikoan, Baptiste Techerrek tronboian eta Charley Rosek saxofoia jotzen osotuten dabe taldea. 22:30ean hasiko da kontzertua.

**IGORRE**

17:00etan, umeentzako zinea *El diario de Greg*. 19:30ean, zinea *El discurso del rey* Kultur Etxean.

**UBIDE**

Amexier Mendi Taldeak antolatuta, Ubide-Oketa-Azero-Gorbeia-Aroiano-Pagazuri-Araza-Zarate.

**ZEANURI**

Erroten ibilaldia. 08:30ean, izen emotea. 09:00etan, urteerea.

**MAIATZAK 9  
ARTEA**

Alex Txikon mendizale lemoztarraren

berbaldia ludotekan. Arkikutak antolatuta.

**MAIATZAK 14  
AREATZA**

23:00etan, Bixer tabernan Jabier Mañon umorista.

**ARTEA**

Umeentzat bideoklip ikastaroa ludotekan.

Parte hartzeako izena emon aurrezdiak udaletxean.

18:30ean, umeentzat Zurrumuru taldeko ipuin kontalaria ludotekan.

Arkikutak antolatuta.

**IGORRE**

Kino Mendi Taldeak antolatuta, Igorreko I. Mendi Lasterketeta.

22:00etan, zinea *Destino oculto* Kultur Etxean.

**LEMOA**

Ganzabal Mendi Taldeak. Arratiako mendiak eta herriak 2. zeharkaldia.

**ZEANURI**

18:30ean, kuruak San Isidro eleizan. Larrabetzuko Gaztelumendi Abesbatza, Bilboko Euskeria Abesbatza eta Zeanuriko abesbatzaren kantaldiak. 20:30ean, Urrezko Aizkoraren final laurdenak frontoian.

**MAIATZAK 15  
ARTEA**

Umeentzat bideoklip ikastaroa ludotekan. Parte hartzeako izena emon aurrezdiak udaletxean.

**IGORRE**

17:00etan, umeentzako zinea *Rio*.

19:30etan, zinea *Destino oculto* Kultur Etxean.

**LEMOA**

Ganzabal Mendi Taldeak Peña Mayor (1256 m.)-Peñalba de Lerdano (1244 m.).

**ZEANURI**

San Isidro eguna. 10:00etan, Abere, Artisanu eta Nekazal Produktuen Azokearen XXX. edizioa. 18:00etan, idi-probak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**MAIATZAK 16  
BEDIA**

17:00etatik 20:00etara bitartean, eta maiatzaren 31ra arte, jaietan paella egunean parte hartzeako izen emotea.

## IRAGARKI LABURRAK

**SALDU****SALTZEAN DOT**

Egurrezko sehaska barri-barria saltzean dot, "Cune" markakoa, 150 eurotan, koltxoia doban. Interesatuak 665 722 575 telefonora deitu.

**SALTZEAN DOT**

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefonora 635 007 632.

**SALTZEAN DOT**

Mendiko bizikletea (BTT) saltzean da. 10-13 urterako. Gixi ibilita. Prezioa: 60€. Interesdunak deitu 634 410 259 (Luis) telefonora.

**LAN ESKEINTZA  
BEHAR BILA**

Goizetan behar egiteko prest nago. interesatuak deitu 676 370 409 (Maite).

**KLASEAK EMOTEN DIRA**

Klase partikularrak emoten dodaz maila guztietan, matematikea, fisikea, marrazketa teknikoak, eta abar. Ikasketa

teknikoak egitera doazen ikasleak prestetan dodaz. Deitu 605 746 487 telefonora.

**ESTETIZISTEA BEHAR DA**

Igorreko zentro estetiko baterako estetizistea behar da. Interesdunak 635 704 739 telefonora deitu.

**EROSI****EROSTEN DOT**

Umeak paseatzeko antxinako karroen bila gabiz. Atera hauts artean gordeta eta ahaztuta daukazuen karro hori, prezioa ipini eta deitu 646 597 501 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doan dira.**

**Begitu-lagunen txokoa****Zenbaki honetako saridunak:**

1

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bi sarrera *El discurso del rey* filmarako.**

Joseba Zabala (Basauri)  
Jose Felix Goioaga (Zeanuri)

2

**Zeberrioko Ametzola Landetxeak emondako asteburu pasa. [www.ametzola.net](http://www.ametzola.net)**

Irune Olabari (Areatza)

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

Igorreko Kultur Etxea  
Lasarte Aretoa



**DENPORA-PASA**

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

**EZKERRETIK ESKOIERA**

1.- Ahalmen intelektualak lantzea. 2.- Min egiterakoan dinogu. Bizkor. 3.- Letra bat. Zeozer erreten danean. Nikela. 4.- Txirringularitza egiten dan ibilbidea. Sufrea. 5.- Umila. 6.- Letra bat. Kemen. 7.- Oinarritzko lau odol taldeetako bat. (Atz.) Bizkaiko udalerria. Berrogeta hamar erromatar. 8.- Zeozer apurtzen danean. Barioa. 9.- Boto.

**GOITIK BEHERA**

1.- Samatik eskegita. Huskeria. 2.- Bike. Tantaloa. Zurrumurruaren onomatopeia. 3.- Letra bat. Sargoria. Kanpo. 4.- Bihotza panpaka. 5.- Edabe garbi. Medikuntza erabilten dan landare ezaguna. Letra bat. 6.- Tinbrearen soinua onomatopeia. Emea ez dana. Berkelioa. 7.- Edabe usainsu. Hegazti bat, enada.

I	K	R	V	U	V	6	H	O	L	I	X	O	I	X	O
V	B	K	K	R	K	8	O	V	I	O	X	V	I	V	R
L	E	V	E	V	Z	7	O	X	V	I	O	X	V	I	V
E	R	O	V	K	K	9	O	X	V	I	O	X	V	I	V
V	A	L	V	V	V	5	S	O	V	I	O	X	V	I	V
S	V	V	V	V	V	4	H	O	L	I	X	O	I	X	O
I	N	S	V	V	V	3	H	O	L	I	X	O	I	X	O
N	I	N	V	V	V	2	H	O	L	I	X	O	I	X	O
I	K	L	T	U	R	1	I	V	I	O	X	V	I	V	R
7	6	5	4	3	2	1	I	V	I	O	X	V	I	V	R

Topau natureagaz zerikusia daben zazpi personen izenak.

A	R	K	O	L	U	M	E	S	A
S	O	R	A	I	M	E	I	T	Z
E	R	A	E	K	O	S	B	A	T
K	O	D	K	A	Z	A	A	J	O
U	R	R	I	G	A	B	I	M	A
Z	A	Z	T	I	A	H	U	Z	H
E	R	N	E	K	L	I	T	A	B
D	O	L	O	M	I	A	Z	O	E
K	A	R	K	E	E	N	A	G	S
A	L	O	I	Z	E	I	G	A	A
J	O	R	I	A	B	O	K	E	R
G	E	A	T	E	O	L	A	R	O
I	H	O	D	E	I	Z	P	O	R
B	A	T	A	K	O	L	A	L	O
O	R	T	O	B	X	T	S	O	M

**AKI MI KO**

Zorrozkiilo



Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte  
• Bobbi • Ray • Aranda  
• AKR • Gulesater • Arandiga  
• Gaudole • Lela • Hassana  
**sein**  
LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296  
seinmoda@hotmail.com

**GARANTXE**  
Autoeskola  
TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ  
Balmaski 41, A, BTE 8  
Lehendakari Agirre 31  
Tlfnoa: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@autoeskola.net

**ARRATIA** AUTOESKOLA  
karmela eskolaraz zein erdaraz  
Gabea, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)  
telefonoa 94 631 54 31, Faxa 94 673 70 83  
e-posta: urroba@autoeskola.net

**Hotel Arantz**  
Bilbao-Centro/Iturriz, 22ko era  
Telefonoa: 94 673 43 28 - Faxa: 94 673 43 28  
9461 IGORRE (Bizkaia)

ALKOHOLIKO ANONIMOAK  
**ARRATIAKO TALDEA**  
Arazoak alkoholagaz?  
Arazoak badaukazuz,  
lagundu ahal zaitugu

**Dia %**  
**PEDRO**  
AUTOSERBITZU  
Sabino Arana, 35 48.140 Igoreze  
Tel. 94 631 15 26

**axular**  
KULTUR ERANTZU  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**Bar Restaurante Montero**  
Eguneko menua  
euskal sukaldaritza,  
sukaldaritza bolibiarra  
eta brasildarra  
Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Salino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutzejatetxea@hotmail.com

**Igorre**  
BIZTAR EGUNAK:  
epaustek 20etatik 22etara  
Udaltzarke arkapetan  
EPA-ko lokalak  
KONTAKTATZENO  
TELEFONOA:  
690 139 044

**INCOESA**  
Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

## OIHANA AIHARTZA ETA ANE LEKUE

**"Lehenengo urtea anabasa izan zan, klaseetan ez egoan patxadarik"**

Markeliñe Antzerki Taldeko Oihana Aihartza eta Ane Lekuegiz izan da BEGITU. Maiatzaren 4an Igorren ikusgai izango dan "Zugan ni" antzerki lehiaketan parte hartuko dabe Igorreko eta Dimako neska bi honeek Arratiako beste gazte batzuek batera. Antzerkian hirugarren urtea daroe baina gaur mozorroa kendu eta ikastaroaren inguruan egin dogu berba. Irabazi egin eben igaz, ea zer gertatuten dan aurtan.

**Irati Urien****Zer da Markeliñe?**

Ikasturtean zehar prestatzen ibili ostean lehiaketa baten parte hartzean dauan antzerki talde bat da. Igorretik aparte Zornotza, Elorrio, Iurreta eta Durangon be badagoz. Barikuro joaten gara ordu birako, institutuko kiroldegira. Bazkide txartel bat be badaukagu; honegaz, Markeliñeren antzerkiak ikusteko sarrerak merkeago izaten doguz. Materiale-rako 100 euro emoten deuskuz Markeliñek baina etxeko gauzak be erabilten doguz.

**Zer dala eta hasi zinien antzerkian?**

Orain dala hiru urte, egun baten Mateo irakaslea etorri jakun talde honen barri emotera. Apur batean pentsau eta probatzea ebatzi genduan. Nahiz eta lotsatiak garala aitortu behar, betidanik gustau jaku antzerkia.

**Zelango balorazioa egiten deutsezue hiru urte horreei?**

Lehenengo urtean institutuko hamabi ikasle inguru hasi ginan. Hasiera anabasa bat izan zan,

klaseetan ez egoan patxadarik. Bigarren urtean jente gitxiago egon ginan, heldutasuna nabari zan... urte horretan lehiaketa irabazi genduan; sariak, afari bat eta lehiaketako sarreraren dirua izan ziran, beste batzuen artean.

**Arratia Institutuko****antzerki taldeak irabazi****eban igaz "Zugan ni"****antzerki lehiaketa****Hilaren 4an Igorreko****Kultur Etxean****taularatuko dabe****aurtengo lana****Arratiakoak, arrastiko****zortziretan**

Hirugarren urte hau ederto doa. Igaz irabazi genduala-eta, jentea animau egin da.

**Zein da ikasturtearen ibilbidea eta antolamentua?**

Hasieran ariketak egiten doguz: esketx batzuk, gorputza mobiliduteko ariketa zein jolasak... Hilabete bat pasau ostean gitxi gorabehera, ideak botaten eta musikea prestatan hasten gara. Handik aurrera, maiatzean egiten dan "Zugan ni" lehiaketa prestatan dogu. Amaieran konturatuten gara ideak aldatuz doazala eta ekitaldian antzezten doguna hasierako ideatik oso desbardina dala.

**Zelan irakasleagaz?**

Sano ondo. Azkenengo urte bi honeetako irakaslea lehenengo urtekoa baino gehiago gustetan jaku. Geuk ebatzen doguz gauzak. Bakotzak bere ideak ekarten ditu eta irakasleak ideak emon eta lagundu egiten gaitu.

**Zein da zuen helburu edo filosofia?**

Esan beharrik ez dago lehenengo helburua ondo pasetea dala. Baina, jakina, antzerkia ondo egi-

tea be bai, ikastea.

**Zer dinotsue familiakoak eta lagunak?**

Animau egiten gaitue, aurrera jarraituteko esanez. Maiatzeko ekitaldian be hortxe egoten dira urtero.

**Ahaztuko ez dozuen momenturen bat?**

Bigarren urtean irabazleak ginala esan ebanekoa, noski. Gogoratzten gara emonaldi horretan gure antzerkia hasi baino bost minutu lehenago, teloiaren atzekaldean gengozala, taldeko bi nerbioakaitik eztabaidan hasi ziran eta negarrez amaitu eben. Ganera, aurreko taldekoak erabili behar genduan foko bat apurtu eben.

**Aurtengo "Zugan ni" lehiaketako zuen antzerkiaren pistaren bat?**

Ez, ezin dogu ezer esan, sekretua da. Datorren eguaztenean, hilak 4, Igorren arrastiko 20:00etan eta 12an Zornotzan, ordu berean izango dira emonaldiak.

**Zer gertatzen da lehiaketan antzerki guztiak antzeztu ostean?**

Epaimahaiaren ebatzien ostean,

aipamen bereziak egiten dira: originalena, eszenografikoki onena, argiai jagokienez onena... zein dan esaten dabe. Irabazlea nor dan, amaieran esaten dabe eta ez dago galtzailerik: diploma moduko bat emoten deuskue danoi.

**Institutuko ikasleak, zuek egin zenduen moduan, antzerki munduan sartzeako mezuren bat?**

Bene-benetan merezidu dau. Ez da pentsau behar lotsatiak izateagaitik ezin dala antzerkirik egin. Izan be, gu be lotsatiak gara eta antzerkia egiten dogu. Ganera, sano esperientzia polita da. Publikoaren aurrean antzerkia egiten zabizenean nerbioak jantzan daukazuz baina amaitutakoan sentiduten dozuna, izugarria da eta pena emoten dau amaitu dala pentseteak.

**Orduan datorren urtean be jarraituko dozue, ezta?**

Jakina. Pozik eta gustura gagoz. Orain hiru urte hastera ausartu ginan eta ez gara bape be damutzen. Momentuz gogotsu eta ilusinoz beteta gagoz.

eskakizun bat...  
... nire aitona-amonei ez zaiela ezer falta.

Bedia udalherriaren erdialdean eta natur gune batetan estrategikoki kokatua.  
Komunikazio, zerbitzu eta prestakuntza ezin hobekak.  
Bilbotik 15 min. eta Galdakaoko Ospitaletik 2 minututara.  
Punta puntako teknologiaz osaturiko instalakuntzak.  
Mundu mailan Laga kontrol sistemaren lehen ezarrera.  
15 urtetako esperientzia.  
Arreta personalizatutako talde mediku multidiziplinarra.  
Gure nagusien zaintzan inplikaturako eta konprometatutako pertsonal kualifikatua...

apirilaren 1etik zabalik

...eta batez ere maitasunez, maitasun osoz.

JANDONIZ  
nagusientzako etxea  
residencia para mayores

Jandoniz, 2 · 48390 BEDIA Bizkaia  
tel. 94 631 31 30 · www.jandoniz.com